

Sebastian Elizburu Gorrotxategi

*Soraluze,
Gipuzkoa
(1921-2018)*

Aurkibidea

Biografia



Kirueta baserrian jaioa. Mendian, txondorak egiten ibiltzen zen gaztetan. Josefa Kortaberriarekin ezkondu eta Madari baserrira joan zen bizitzera. Igeltsero ogibidea ikasi eta inguruko herri askotan ibili zen baserriak konpontzen. Madari baserritik kaleko etxera bizi izatera joan ziren eta geroztik Gabolatzen bizi izan zen semearekin.

Zintak

SOR-009

• **Proiektua:** Soraluzeko euskara eta ahozko ondarea

- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Data:** 2001-08-13
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar

SOR-015

- **Proiektua:** Soraluzeko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Unamuno, Egoitz
- **Data:** 2001-01-01
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** Mini Disc

SOR-024

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2003-07-03
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

SOR-025

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Soraluze
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2003-07-03
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** MiniDV

SOR-053

- **Proiektua:** Soraluzeko euskara eta ahozko ondarea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier - Unamuno, Egoitz
- **Data:** 2003-05-09
- **Iraupena:** 80 min
- **Euskarria:** Mini Disc

Pasarteak

1. Anaiak soldadutzan eta bera ikazkin

- **Erref:** SOR-009/012
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:42:10. **Bukatu:** 00:43:15

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriri lotutako lanbideak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Anaiak soldadutzan zeuden bitartean, Sebastián ikazkin. Aita zena ere gaztea zela, ikazkin ibilitakoa zen.

2. Ikazkintza: txondorra nola egiten zuten

- **Erref:** SOR-009/013
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:43:15. **Bukatu:** 00:46:50

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Txondorra nola egiten zuten. "Txendor-zulua". Egurra orbelarekin tapatzen zuten; ondoren lurrarekin.

3. Ikazkintzaren arriskuak

- **Erref:** SOR-009/014
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:46:50. **Bukatu:** 00:48:35

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Ikazkintzaren arriskuak. "Zoixa". Azalpenak.

4. Pol-pol mendian ikazkin

- **Erref:** SOR-009/015
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:48:35. **Bukatu:** 00:52:20

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Natura » Fauna

Laburpena:

Pol-pol mendian ikatza egiten. Basoko animaliak.

5. Ikazkintzaren inguruko azalpenak

- **Erref:** SOR-009/016
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:52:20. **Bukatu:** 00:54:25

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ikazkintzaren inguruko azalpenak. Ikatza goitik behera egosten da.

6. Ikazkintzaren inguruko azalpenak

- **Erref:** SOR-009/017
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:54:25. **Bukatu:** 00:57:10

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Zenbat denbora behar izaten zuen egurrak egosteko. Ikatza eginda dagoenean, aldiko-aldiko atera behar izaten da.

7. Ikatzairen garrantzia: nora saltzen zuten

- **Erref:** SOR-009/018
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:57:10. **Bukatu:** 00:59:00

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Ikatza nora saltzen zuten: Sacia-ra; beste lantegi txikiago batzuetara; e.a. Ikatza oso ongi ordainduta zegoen. Ikazkintza vs. baserriko lana. Inguruan ez zen ikatz askorik egiten: askok jakin ez; beste askorentzat gaizki ikusita.

8. Ikazkin ibilitako ezagunen inguruko kontuak

- **Erref:** SOR-009/019
- **Iraupena:** 0:06:10. **Hasi:** 00:59:00. **Bukatu:** 01:05:10

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Ikazkintza. Ezagunen inguruko kontuak; anekdotak.

9. Inguruko erromeria ezagunak

- **Erref:** SOR-009/021
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 01:06:05. **Bukatu:** 01:08:20

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Erromeria kontuak. Maltzagako erromeria. Maltzagatik Arratera igo eta handik Barinagara joaten zen neska-laguntzera. Inguruko erromeria ezagunak.

10. Erromeriak; soinujoleak

- **Erref:** SOR-009/022
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 01:08:20. **Bukatu:** 01:10:20

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Erromeria kontuak. Aldasoroko bi anai, soinujoleak.

11. Inguruko erromeria ezagunak; Garizuma

- **Erref:** SOR-009/023
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 01:10:20. **Bukatu:** 01:11:00

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Inguruko erromeria ezagunak: Osintxu; San Andres (Garizuman)

12. 'Txirrita' Eibarren bertsotan, 1936an

- **Erref:** SOR-024/002
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:00:20. **Bukatu:** 00:03:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Jose Manuel Lujanbio Txirritak 1936an abestu zuen azkenengoz Eibarren. Kontakizun desberdinak gai honen inguruan.</p>

Transkripzioa

- Txirritak azkenengo Eibarren kantau juan "mil novecientas treinta y seis" edo, gerra-denporan azkenengo. Beran [lehengusu...] izen zuan.

- Txirritan lehengusua?

- Txirrita, lehengusua ta bixek. Eibarko jaixetan. Azkenengo Eibarren kantau ei juen. Kantau jittuan bertsuak. Gizona galanta Txirrita, ehun ta berrogeta hamar kilo izandakua, paretagiñan artistia. Hari ur emotekorik apenas zuan hemen paretagiñan. Harek hamazortzi bat urte zittuanetikan aurrera, gaztetan ekindda, paretagiñan, ta oso erosua. Harek Donostian estaziñotikan han beheko Amarako zerera, plaiara bittartian, han ezkerreko aldian pareta haundi bat daok. Ez dozue ezautzen zuek haura?

- Nik asko ez...

- Estaziñuan urten ta handikaldera, plaiara hoiala, baztarrengo kalia pareta haundi bat daok, kriston paretia. Haura eitten, hori mutil gaztia artian, Txirrita ta bestia zelan zuan? Artzai txikixa. [Berak paretagiñan...] Txirritak ta hori mutil gaztia berekin. Edo horrek beste bixak nausixauak eta hau mutil gaztia harekin han lanian. Han paretan ebizela ta goizian hor bederatzirak inguruan edo, medikua pasatzen [ei zuan] beti han plaia aldera. Beti zeoze esatekua eukitzen ei juan Txirrita horri, mutil gaztia ta. [Horri beti]. "Da!" jartzen [ei zuan] begira ta beti [horri]. Horrek baten esan ei juan: "Horretxek gizonorrek ya aspertuta nauka ba. Beti dauka neretako horrek zeoze esatekua. Egunen baten aittu behar du edarra". "Ez, ez, hori mediku jauna dok! Lagaixok horri bakien, medikua dok eta. Hori errespetau ein behar dik". Baiña beti jarduten ei jotsan ta egunero ta egunero ta azkenian berak alkarri esan ei jotsen: "Lehengo egunian horri jardun

genduan horri bakian laga bihar [jakola], hori errespetau ein bihar dala-ta esaten. Merezi bajok zeoze esatia! Halako gogaigarrixa dok...! Beti mutil gaztiari amenazua emoten jiharduk horrek". Haura entzun ebanian, bestiori, Txirritori, itxuria, pixkat mejorau zuan. Handik ondorengo egun baten bajoiak han zihar medikuori, ta medikuak: "Falta de cantero tapa albañil". Bestiak: "Falta de médico tapa enterrador".

- Lehelengua zela esan dozu? "Falta"...

- "Falta de cantero tapa albañil", igeltseruak harena arreglatzen dabela. Pareta gaizki eindra badao be igeltseruak arreglau bihar. Bestiak: "Falta de médico tapa enterrador".

13. 'Txirrita' bertsolaria

- **Erref:** SOR-024/003
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:03:55. **Bukatu:** 00:07:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Jose Manuel Lujanbio Txirritaren bertsok.</p>

Transkripzioa

- Ta haren bertsuak badakizuz?

- [Hik esan nahiko dok] haren bertsuak. Hori solterua zuan, [ta batak eta bestiak] beti jardutzen ei jotsen ezkontzia edo bestia edo ez dakit zer ta ya zahartuta euala ta... Berak beran buruai kantau jotsen bertso bat. Zelan zuan?

Hamen mutil gazte bat ba omen zan
hogeita bi urtetarako ezkondu nahian
oin hirurogei pasiak eta
orandio dago gaian
lehendabiziko horren pregoia
aditutzen dan [garaian]
suzko zezenak izango dira
Plazentziako kalia.

Eta baita ere bi zezen gorri...

- Ez.

Eta baita ere bi zezen gorri-gorriak...

Eta baita ere bi zezen duan
toreatzeko gorri-gorriak
galanki asko kostako...

- Ez. Aldrebes nabik.

Eta baita ere zezenak duan toreatzeko
bi zezenak gorri-gorriak
galanki asko kostako zaizkigu baiña

gizenak eta haundiak
hoiek hiltzeko bi anaia
indar haundiko gizonak
Pedrusko eta Blasin dauzkagu
etorritzeko esanak.

Txaltxiltxa eta lukainkarekin
pillo ikaragarriak,
beste berrogeta hamar kapoi pare ta ehun oilasko
agintzen dizkigu zerriak
beste hogeta hamabost neska narru gorri-gorriak
mahai zerbitzeko jarriak
hori ezkonduzian izango dira
bankete ikaragarriak.

- Ta horrek zuk nun ikasitta dozuz, horrek bertsuok?
- Horrek bertsuok? Liburua daukat.
- A! Liburutikan.
- Nahi dok ekartia?
- Lagaixozu, zeuria entzutia nahixao dou.
- Eta nun kantau zittuan honek?
- Txirritak?
- Txirritak nun kantau zittuan honek? Badakizu?
- Plaentxian.
- Plaentxian bertan?

14. Bertsolari ezagunak Soraluzen

- **Erref:** SOR-024/004
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:07:35. **Bukatu:** 00:10:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Txirrita batera eta bestera ibiltzen zen bertsotan.
Bertsolariak Soraluzen. Gaurko bertsolariak. Manuel Olaizola Uztapide
</p>

Transkripzioa

- Eta, orduan, esan dozu Eibarren egon zala Txirrita kantuan, ta Plaentxian be bai eta...
- Hori leku askotan orduan.
- Sarri etortzen zan hona ingurura?
- Bai. Hona ta leku askotara hori orduan, oin bersolarixak dabizen moduan ibiltzen zan hori bersuetan.
- Jaixetan lehenao bertsolarixak-eta izaten zian?
- Bai.
- Auzuetako jaixetan eta...
- Bai, bai. Hamen, gu mutikuak giñala ezautu genduazen hemen Ezozin-ta be bertsolarixak.
- Eta hona zeintzuk etorten zian?
- Hona gehixen-gehixen... Oin akordauko jatak... Kauen dio! Hau markia izango juau horraittio!

- Ta nundik edo zela? Harek orduan mikrofono barik kantaiko eben, ba...
 - Ordun bariken, ezer bariken. Ondio denpora asko ez dala, horren gaitian, hau, Garmendia bersolarixa? Harek. Harek eguenetan, zortzi ta larenak aldian edo Arratetikan jardutzen jok berbetan. Ta harek esan jua "bersueta kontua ta, baiia lehen bersotan... Gaur badarela bersolarixak eta gaur badarela bersolarixak eta, baiia ez nao zihero de akuerdo" esan jua. Gaurko bersolarixak iztarririka ez daukek, iztarrixa hortarako ipinita ez daukek, ta hortarako iztarrixa ipiia ein bihar hortarako. Iztarrixa pixkat gogortu ein bihar izaten da, norberak etara, ezta? Berbia haura [lorittu edo zertzera], inddarra ein ta eztarrixa preparau ein bihar izaten zala. Gaur dabizen bersolarixak altabozik barika ipini ta nahi neuke ikustia. Edo gustauko [litzake] halako aberixa bat izenda baleo, ta halako zer baten pozik egongo nitzake, ia zelakuak kantatzen dittuen. Uztaide ta zittuan hemen [etortzen] izeten zianak. Solterua zuan Uztaide. Ezautuko huan hik igual... Ez?
 - Ez, entzutia bai baiia...
 - Uztaide, ez?
 - Entzutia-ta bai.

15. Ezoziko jaiak

- **Erref:** SOR-024/005
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:10:10. **Bukatu:** 00:12:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

<p>Jaiak zelakoak izaten ziren. Ezoziko jaiak; hiru egunetan jendez beteta. Herri-kirolak: ahari-topekak; idi-probak...</p>

Transkripzioa

- Ta jente asko batzen zan orduan jaixetara? Zelakuak izaten zian orduan?
 - Orduan? Aurten Ezoziko jaixetan --hiru egunetan egon dia, eztok? jaixak Ezozin-- hiru egunetan baiia gehixao orduan Ezoziko egunian batuko zuan jentia Ezozira. Ezozitika, hor behetik, zerian, oin kamiia daon lekuan, hor bide zahar bat zuan, burdi-bide edo esaten jakona. Ta gero hamen Armendittika gora be dana gaztaiiadiak-eta hor gora. Horrek danak jo-ta jentez tapauta egoten zittuan. Ezozin ordurako bazuan, taberna moduan eukitzen eben hori, lehengo zaharraura, ta kaletika beste lau bat taberna kalekuak [juaten] zittuan egun hortarako Ezozira. Han [Espilla] aurria be bai ta [zerran] aurria bi edo, plazan eskiia bixetan ta goiko zerian be bai, elizpian be. Baiia jentia...! Orduan izaten zuan jentia! Gaur Ezozira juaten dan jentia bapez harekin konparauta.
 - Eta ze zian, jaixen artian haundiia Ezozikuak?
 - Ezozikuak? Ba, bezperan zeoze egoten bazan, ta gero bertan, Ezoziko egunian, bakarrika. Ez oingo moduan, egunetan ez zuan lehen izaten.
 - Eta ze egoten zan egun hortan?
 - E?
 - Ze egoten zan?
 - Bersolarixak eta aizkoran be igual batenbatzuek eta harrijasotzen be bai ta... izaten zittuan. Adari toperen bat edo beste be igual ta...
 - Adari topekia ta be bai, e?

- Adarixan-topekia ta egoten zittuan. Proban be bai idixekin.
 - Idixekin be bai, e?
 - Neu izenda nao Kiruetatikan idixekin. Oin galduta egongo dok haura, ta hantxe plazian beheko barren-barrenian egon zuan harri zakar haundi bat. Haretxekin, lurran geiñian.
 - Ta ze, Plaentxiako beste batzuen kontra edo?
 - E?
 - Plaentxiako...
 - Munetakua bestia. Harekin. Ta harek... Haura zuan aurretikan, tokau jakuan, Pio edo, artistia. Ta hari tokau jakuan aurretikan ta harek bost ultze edo ein jittuan. Nik harek ein nittuanian, ba, lagatzeko moduan zertu nitzan. "Beste batzuek" eta "Beste batzuek" eta jentia. Eta beste sei edo ein najittuan. Gero merienda emon oskuen idixekin juan giñalako ta... Demasa ein gendualakuan idixekin juan giñala ta.

16. Idiak erostera feriara

- **Erref:** SOR-024/006
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:12:40. **Bukatu:** 00:15:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Idi zalea izan da. Tratulariak ferietan: Elgoibarren, Bergaran, Arrasaten... Idiak oinez feria-tokitik.</p>

Transkripzioa

- Zeu idixena zalia izen ziñan...
 - Bai. Idixena zalia, ba! Idixak euki najittuan nik Kiruetan onak be idi paria.
 - Ta horrek nundik ekarten zian, edo zela izeten zan hori?
 - Horrek lehen tratantiak esaten jakuen --bueno, oin be tratantiak [...], oin ez dao holako zerikan--. Lehen hamen, Elgoibarren --oin be segitzen jok horrek hillan azkeneko zapatuetan--, perixia. Lehen be hillan azkeneko perixia. Hillan azkeneko zapatuetan Elgoibarren perixia eitten zuan. Hamen Bergaran, Mondrauen ta gero, berriz, Vitorixan-ta, berriz, hor perixa haundixak. Ta Mondrauen-ta be bai. Orduan idixak ekin aurretik etortzen zittuan, ba, baikutzak... Bergaratik etorriko zittuan hiru bat tratante bai behintzat: Ttuntturra, bestia Antoniotxo-edo esaten otsena be bazeuan, ta hiru be bai Bergaratikan. Gero Mondragotikan-ta be bai. Orduan ganauak danak oiñez ekarri bihar izaten [jittuan]. Goixian hamaikak aldien izaten zittuan jeneralian hemen be, Elgoibarko perixakuan be, idixek. Pillo baikutzian hor hamabost-hogei bat pare idi, gero behixak be bai beste tarte batzuetan. Orduan kotxiak artian gitxi izen be automobilikan-ta, baiña idixak kotxiak errespetau bihar izaten [jittuan]. [Berak jo-ta idixok], bidesaillian idixok eta zerien, "eeee!" ein ta beste aldetikan berak. Idixak eskumatikan bialdu bihar izaten [jittuen]. Berak ezkerretikan hartzen zittuan ta akulu luze batzuekin "eeee!" ta [...] "eeee!". Ta bestiak atzian [datoz], ta holako batzuek ein ta idixok pixkat erretiratzen jittuen alde batera. Ta gero, sarritan, igual idin batek pixkat hola ezkerreko zerien-ta, baiña kotxiak hari ikutzen baotsan multia kotxiak.
 - Kotxiak?

- Bai. Idixai aberixia eitten baotsan, idixak jaso bihar. Kotxiak errespetau bihar haura. Orduan kamiñuan ibiltzia ganauakin gaur baiño erreztxuaua zuan. Gaur ez daok holakorikan, gaur kotxia libre ta idixak pagau biharko leukek segurua.

17. Ferian idiak erosi eta baserrira oinez

- **Erref:** SOR-024/007
- **Iraupena:** 0:06:50. **Hasi:** 00:15:00. **Bukatu:** 00:21:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Idiak izateko zaletasuna nondik datorkion. Basoan txondorrek egiten zituzten eta idiak behar izaten ziren ikatza garraiatzeko. Feriara idi bila. Tratulariarekin harremana.</p>

Transkripzioa

- Ta zeuk nundik zekazun afiziñua idixetarako?
- Nik, aurretikan Kiruetan beti behixak egoten zittuan. Ta [...] onak be bai behixak, behi gorri bi. Gero beste anaiak soldau ta zerian, ta neu egon nitzuan etxian, basarrixan, Kiruetan. Behixak geunkazen, ta behixa uztarrixan erabiltzen nebana, bata, pixkat kantsau edo zertu be ein zuan, ta gero txixan odola agertu jakuan behixorri. Ta iketzak geunkazen eindda Munetako haitzetatik beheratxuao. Han txabola zahar bat. Badakik zerak nun daukan txabolia?
- Izarrekuak?
- Izarrekuak? Haura baiño beheratxuao beste txabola bat. Han onduan Kiruetakuak baso sailla [geukan]. [Oin] piñu-zurixa [daok] han, baiña lehen basua zuan ha.
- Ta ze baso?
- Haritz ta paguak eta... Ta haren adarrekin-ta [...] ta hiru txendor-edo egozen han eindda. Ta idixok [ez zeren], ta gero, gaiñera, udazkena be bajetuan ta zerian ta... Aitta zanak-eta behixa, behi bat edo, bestela, uztarrirako modoko behi bat edo, bestela, idi bat edo... Aitta zana ondoezik jebixan, ta han txendorrak najeukazen eindda, ordurako egosten ipinita. Han laga lau txendor egosten --goixian beittu bat ein najotsen--. Ta etxera etorri nitzan, etorri Kiruetara handiken, ta arrautza prijidu bi jan, ta aintxixika trena hartzera, ordu bateko trena hartzera, hona estaziñora. Justu-justuan trena hartu najuan hor ta Mondragora. Juan nitzuan Mondragora. Behixa ekartzia ta "idixa bakarra ekarri" ta halakuak, ez dakik? Aurretikan, etxian, ba, eurak "idi bakarra ekarri" ta zerian, baiña ez najeukan idi bat bakarrik ekartzeko gogo haundirikan be. Ta Altuna-edo, tratantia, Bergaran, han, plazan, ta orduan [hara aillegau giñanian] han jiharduen idixok-eta uztarrixan edo makilletan-ta lotzen jittuen idixek paria eitteko. Hau halako pare, ta beste paria ta ezker-eskumak-eta [alkarrekin ipintzen]. Hara juandakuen preparatzen jardutzen juen. Bajiharduen orduan be han preparatzen ta zerien. Ta idi bi, bata [gaztaiña-gorri] zera eitten ebana ta bestia beltz-beltza, halako adar zorrotz batzuk zittuana. Harek han goiko muga zaharrien-edo jebixazen artien, behera pasatzeke jeukezen. Hareri begira egon nitzuan pixkaten, neu pentsatzen: "Mekauen,

horretzek dittuk bixek polittek!". [...] neure artien, baiña... [Bera] pixkat hurreratzen [...] ta bestekaldera alde ein najuan bi aldiz be bai. Atzera hona beherao etorten nitzuan ta atzera [buelta ein...] ta hirugarrenian-edo berriz behixori begira banaok eta berriz be ekin nitzuan ta "Zu gazte!" Atzetik diar ein ostan. "Hona!". Geratu nitzuan etorri artien. "Zuri horrek idi horrek gustatzen jatzuz asko?" esan jostan. Ba, [gustau...]. "Idixak bihar dittuzu?" esan ostan, ta "Idixak edo... Idi bat edo". "Idi bat ez eixu, ba, eruan. Idi bat eruten badozu, etxian daukazun behi danak alperrik galduko dittuzu, idixak berana [eitten dau-ta] behixekin. Ta ez eixu eruan. Honetxek gustatzen jatzuz asko? Ba [hartizuz] horretxek idixok ta eruan etxera. Jaten ondo emon idixeri, berduria-ta ondo emon, ta uztarrixan be erabili. Ta idirikan ez jo, kurioso erabili idixak". Holako esplikaziñuak emon ostazen harek. "Ta datorren perixakuan--artian hillebete hurrengo perixara Elgoibarrera, Egoibarkua, ta-- idixak gustatzen bajatzuz, idixak laga etxian ta zeu etorri. Ta idixak gustatzen ez bajatzuez, idixak hamaiketarako ekarri Elgoibarrera. Baiña jaten ondo emonda ekarri idixak".

- Eta gustau jatzuzen?

- Ordurako [be ya] gustatzen jatazen ta. Han hartu najittuan idixok eta banatok ixa Bergarara allegauan idixokin. Idixok [bazarrian aurrian bialduta najekazen] ta [...] Bergarara allegauan. Ta "dedios!", bata... Neu be itxuria aurrekaldera pasau nitzuan; idixa hola pixkat atzera geratu jatan itxuria. "Da!" buelta ein jostak ta buelta ein najuan ta hor doiak idixori atzera gora, Mondrau aldera. Mekauen dio! Beste idixa behien. Idixa behian geratu zana... Pixkat albuhan arto-sorua jeuan han kamiñotikan bertan onduhan arto-sorua. Juan nitzuan, bestian onduhan ekin nitzuan ta dios! Ixa Bergarako kaliak atzera gora pasauta... Han esaten najutsen batzueri: "Eutsi horri! Eutsi horri!", baiña idixa bera be pixkat hola zezen modoko tipokua zuan, beltz bat. "Eutsi horri!" ta behixori... Neska gazte bat, ixa Altos Hornosera aillegatzen [doiela], goittik behera bizikletan. "Eutsi horri!" ekin nitzuan hari be, neskiarri, "Eutsi horri! Eutsi! Ez [dotsu] horrek ezer ingo ta, eutsi!". Jaitsi bizikletatikan ta... "Hartu bizikletiori aurrekaldian ta eutsi, ez dotsu ezer ingo ta!". Neskia jo-ta holaxen bizikletiatikan ikaraz. Juan nitzuan ta hartu najuan idixori adarretikan, ta pezetia-edo emon najutsan neska gaztiarri. Euki be ez najuan asko gehixao ingo ta. Pozik juan zuan neskatxuori, laztana be emon jostan ta, bere bizikletiorrekin. Atzera abantau goittik behera ta neu pentsatzen: "Oin beste idixa nun egongo ete dok?". Atzera behera aillegau nitzanian, hona Zapateriko ondora aillegau nitzanian, beste idixa arto-soruan. Ordurako illunduta. Artuok... Neuk be hartu najuan, kolkora hartu najittuan artaburu batzuek, sartu najittuan. Han alkarri bixak sokiakin katiau [najotsezen] buruetatikan, ta [...] emon] ta... Hona artian ondo, kalera artian ta pixkat gora ekin zian artian ondo [honuzkuan] idixok. Baiña hemen aldapa zaharrien gora-ta ekin zianien, "ño!", ordurako pixkat kantsauta egongo zittuan ta. Baiña aillegau nitzuan gabian hamabi ta erdiak ingururako etxera, illundu ta gero. [Nere] ate-zaratia entzun [zebenian] segiduan jaiki zittuan ta zerian. Ta "Baiña, idixa bakarra [ekartzeko esanda] ta idi pariakin etorri haiz!" ta "Bai, idi pariakin etorri naiz. Paria ekarteko esan dosta, ta paria ekarri dot", ta zerian. Ta gure ama zana ta aitta zanori... "Laga eixozu, laga eixozu, badabil lehen be nahikua lan ta. Badabil nahikua lan", ta zerian. Idixori zeeze jaten emon, neuk be jan najuan beste arrautza gordin bi edo hartu najittuan ogi zati batekin ta atzera txendorraana juari hara mendira!

- Txendorreri begiratzera?

- Beitzera badaezpada be. Ondo jeuzen.

18. Ikazkintza

- **Erref:** SOR-024/008
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:21:50. **Bukatu:** 00:24:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Txondorrek basoan. Zorriak lastotan. Non egin izan dituen txondorrek. Basomutilak ikazkintzan. Inguruko ikazkinak.</p>

Transkripzioa

- Hurrengo goixian jaiki nitzuan bost eta erdiak inguruan, ta txondorrek, beittu najutsen, ta pixkat sakatu ta zera ein. Ipini najittuan gertaut ta, ba! Etxera etorri nitzuan ta armozau. Gero etxian pixketian lanian, ta berriro eguardixan beste buelta bat ein najutsen. Ta, ba! Berriz atsaldian juan nitzuan seirak inguruan. Gero han txabola zaharrian egoten nitzuan. Han neukan lastua, gari-lastua, haura azpitan ipinita; [gero] manta zaharren bat edo. Udia zuan ta... ba! Han egoten nitzuan. Egun baten, hurrengo goixian, aurretik be zeoze akordaut [...] egun baten, holan, zera, ta koño, hemen, hola, hazkuria-edo sentitzen najuan ta zerian, baiña begira ibiltzen nitzuan ta ez najuan ezer zertzen. Orduan egunian txondorrorri beittu notsenian pentsau najuan: "Pixkatian etzin ein bihar juat". Jarri nok hola ta auspez banaok --lastua azpitan ta--, hola banaok, ta zorrixak, hi! [... dantzia]. Mekauen dios!

- Laste jaikiko ziñan...

- Bai. Hor erantzi erropok ta danak astintzen jardun najuan! Erropok-eta baztarrai jo [erain] najittuan, ta lastuok etara najittuan hara danak kanpora ta su emon ta erre najittuan.

- Biharko! Han sartzia baiño hobe behintzat!

- Gero, handik aurrera, abar bat botatzen najuan azpitan —paguen goiko zotz mehiaura; mehiarek eta lehelengo azpitan bota—, gero geiñian bota arbolok, ostrua mordoska bat eta harexen geiñian. Ondo!

- Han hobeto?

- Baiña hari ez jakok eitten mamarrurik, [...] zorririkan ta. Ez. Gero harrazkero be sarritan ein dot nik. Etxepian gorauan be bai [...]; Pol-polen be bai ta Aittan-txaboletan be bai ta Gaintxurixoko etxe-ostian be bai ta...

- Txondorakin?

- Txondorrek eitten, iketza egosten. Pol-polen hiru txandatan be bai. Itturrixan... Pol-poleko itturrittikan Hirukurutzetara bittartian. Orduan mutil kuadrillak ibiltzen zittuan hamen Naparrua aldian-ta be ikazgiñan ibiltzen zianak. Kuadrillak eta kuadrillak.

- Kanpotik etorten zian hona be?

- Asko bai kanpotikan. Hamen bertakorikan, orduan denporan... Aurretikan ta be ibiliko zittuan hemen be, baiña orduan, ni ibili nitzan denporan, besterikan... Ipiñarrietakuak ein jittuan bi txondor edo; bat erre ein jakuan.

19. Txondorra egiteko urratsak

- **Erref:** SOR-024/009
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:24:50. **Bukatu:** 00:26:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Txondorak nola egin behar diren. Ezagun bati erre egin zitzaien.

Transkripzioa

- Aurretik esan najotsan: "Hau... ez [eixok] honi txendorronek surik be sartu". ["Zeba?"] ta zerian, ta "Zeba?". "Hau atzera soltau ein bihar jok horrek txendorronek ta berriz kargau". Eske txendorra komeni izeten dok, lehelengo barruan-ta egur zakarrak be ipintzen jakuezik, baiña hau egur mehiau be kurioso-kurioso. Gero, azkenian, egur holako sendoerako egurakin-edo dana bardin-bardin ein bueltan. Ta gero orbela botatzen dotsek arbustuori ta harekin. Lurra barrura jua ez dein [izeten dok] haura ostruaura. Ta gero geiñian lurrakin tapau. Ta harek haura bardinddu biharrian, goixan puntan laga jua holako pago-adar mutur haundi bat, gora euala ta zerian. "Horrekin ezin leikek, baiña!". Haura zohixa, lurrien etara zohixa ta zerien, ta harekin ipini ta "Bai, bai". "Ezin leikiela! Kendu ein bihar dala!", ta "ez" ta "bai" ekin [...]. "Heuk ein eik orduan nahi duana, ni ez natok berriro hona ta!". Alde ein najuan ta gero San Andresen zahar bat. Haura be ibilitta euala-edo, ta harek be jardun ei jotsan: "Baiña, hau, sua pixkat behera ekitten danian, hamendik suak ingo jok eta ez jok errendiduko hau! Hau ez dao [...]. Halaxe ein bihar zala ta ez dakit zer ein bihar zala ta beria. Ondo geratu zala, bestia zala, bazkaitara etorri zala etxera... Atzera jua zanian txendorra erdi [erre...], dana su hartuta ordurako. Ta behin txondorak su hartu ezker, [...] dominatzerikan. Ez dakak [urriñera] juaterik hurrera. Han geratu jakon.

- Orduan, inportantia ze zan, ondo bardintzia?

- Txendorra? Bai, ondo bardinddu. Azkenerako haura bardin-bardin geratzen dok.

20. Txendorra egiteko urratsak

- **Erref:** SOR-024/010
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:27:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Txondorra nola egiten den sakon azaltzen du.

Transkripzioa

- Orduan, inportantia ze zan, ondo bardintzia?

- Txendorra? Bai, ondo bardinddu. Azkenerako haura bardin-bardin geratzen dok. Zuek ikusi dozue --ze esango dotsuet, ba-- bedarrakin einddakua, metia edo? Ha, kanpuan edo iñoiz, behian sendo-sendua ta gora mehiao-mehiao ta? Txendorra halaxe ipini bihar dok. Ta gero azkenian be halaxe urten bihar jok harek. Puntatikan lagatzen jakok txendorrari holako sendoerako egur bat. Ipintzen dok erdi-erdixan. Han, ba, plazuela haundixa izeten dok ta han plazuelian erdixan heuk ipintzen dok tente. Ta gero egurrekin, lehelengo senduenak; gero ta mehiauak, gero ta mehiauak

han bueltan-bueltan kargatzen dotsazik. Honi ipintzia moduan. Ta honen bueltan, ba, eitten-eitten bahoia haura. Hamen erdixan, honen kontrara ipintzen dittuk bestiak. Honek hemen ipintzen dittuk bueltan-bueltan gero. [...] Gero bigarren pisua botatzen dotsek hemendikan berriz. Gora. Metro bat inguru luzian ebaitzen dok egurra gutxi gorabehera.

21. Ikatza egiteko egurra nola mozten zuten

- **Erref:** SOR-024/011
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:27:45. **Bukatu:** 00:28:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Egurra aizkorarekin mozten zuten. Egur handiak trontzarekin.

Transkripzioa

- Ta orduan egurra zela ebaten zenduen?
- Aizkoriakin.
- Aizkoriakin?
- Dana. Orduan ez zeuan... [Bakarrik], egur haundin batzuk bazian, trontziakin. Trontzia, badakik, eztok? Bi lagunen artian. Harekin. Bestela, dana aizkoriakin. Ekin goixian ta gabera arte aizkoran. Gaur askok esaten juek hemen --hau, Olasagasti--: "Ene! Olasagasti!". Ta hor badok Ziriako, erdi zoro bat, radixotik jardutzen dabena. Bere Olasagastixokin jardutzen jok harek gehixenian "Haura, haura..." [jaso ezinda] jardutzen jok. Gaur Olasagastik eitten daben lana guk orduan egunero eitten genduan. Ez, hola, ekiñaldi bat eta bakarrikan. Egunero. Horrek eitten daben baiño beltzao lana. Guk orduan Olasagastiri gaur horrek eitten dittuan markak laster tapauko gontsazen.

22. Ikazkintza

- **Erref:** SOR-024/012
- **Iraupena:** 0:05:32. **Hasi:** 00:28:40. **Bukatu:** 00:34:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

<p>Txondorra egiteko lehenik zuhaitzak bota behar. Idiekin garraiatzen zuten egurra. Gurutzea txondorra bedeinkatzeko.</p>

Transkripzioa

- Zuek ze eitten zenduen? Zu heltzen ziñan baso batera eta dana zeuk eitten zenduan? Lehelengo hartu arbolia ta...
- Lehelengo bota arbolia. Gero harek adarrak apaintzen hittuan danak.

Txikixak kentzen jakuazen ta harek tantai haundixak geratzen zittuan. Ta idixekin-edo batu.

- Tantaiak esan dozu?

- E?

- Tantaiak?

- Tantaixa esaten jakuan pago adarrari. Harek adar txikixak-eta kentzen jakozen, tantaixak, pago-tantaixak. Harek batzen hittuan hara buelta hara. Hau dok txendorran... hau dok txendorra ein bihar douna, ta hona bueltara batzen zittuan harek osorikan idixekin. Gero txikittu metro bat inguru altuan. Gero han bueltan lagatzen hittuan, mehienak azpirengo, ta senduak bueltan. [Behetik gora], mehiak lehenengo azpitan, ta senduauak, senduauak, senduauak... pillia eitten heban han. Ta hurrengo zertu bihar dittuanian harek ya gertu heukazen. Ekintzen hetsan atzera ipintzen honen kontrara ipintzeko. Han berriro haura geiñetiken kentzen-kentzen, ta senduenak tokatzen [...] lehenengo azpitan danak, ta mehetzen, mehiuauak-mehiauak, azkenian harekin mehiekien hik [bolia] eitten heban, tapatzen heban orbelakin, ta gero lurrakin tapau. Ta hamen goittik behera [sartutakuan] egur haura, hola, beste bat harek [kurutzia esaten juen] hemen sartuta eruaten juan, [gabillian] moduan. Hau egurrau, hemen euan egur sendo haura, honekin ta ikara batzuk-eta erein zerian ta tira ein ta etaratzen heban gora, ta han beheko barreneraiñokan haura zuluaura geratzen zuan. Geiñekaldian sua ein, ta sua eitten zanian, lehelengo lana: kurutzia gaiñekaldian ipiñi. Eitten heban: basuan pago-adarra, pagua, hau baiño senduaua, holako sendoerako adar bat hartzen heban holako luzerakua. Haura jotzen heban ta jo-ta hemen behera pixkat bringatzen heban, ta gero honi sartu [...] beste egur bat hemen, ta kurutzia indda. Hau kurutziau geiñekaldian ipiñi. Txendorra hemen beuan, hemen geiñekaldian kurutzia egoten zuan.

- Hori zetako izaten zan?

- E?

- Zetako...?

- Kurutzia bedeinkatzeko.

- Bedeinkatzeko?

- Bai.

- Gero, txendorra hik hemen eindda ta, konparaziño, hor errekoa, hor albuan, ta txendorra hik hamen berdin ein, ta tapau be bardin samar ein, igual txamar, tapau dualakuan, ta segiduan izaten zuan haura aldiaura lurrakin gehitxuao kargau bihar. Han dauan urak sua hara eruaten jok.

- Tiratu eitten dau?

- Tiratu eitten jok. Gitxi, baiña beti. Jeneralian, beti haura aldiaura gehixao kargatzen ibili bihar suari eusteko. Bestela, sua bardin ez badoia, haura txendorra bardin-bardin ez badoia goittik behera gastatzen-gastatzen, "ya se jodió". Harek danian bardin juan bihar jok. Haura pixkat goixan [zertzen] lehenengo, brasia eitten danien, paliakin han zulotik behera botatzen dotsak, ta gero egur-kaskuak berriro ondorian ta zerian ta... Berriz be han keia edo zera ekitten danian, bota palakada bat edo bi berriz lehelengo brasia, berriz be egur-kasko batzuek eta zerian, ta haura belaxe betetzen dok goraiñok [...] zuluaura. Goraiñok betetzen danian tapatzen dok zohi haundi batekin... Zohixa badakik zer dan?

- Bai.

- Bai? Ba, harekin tapatzen dok ta han egoten dok haura keia darixola. [...] Gero, geiñian [...]izeten dok], ba, zuk gaur goixian tapau hau, edo su emon ta sua zertu ta tapauta ipiñi [...], illuntzi aldera berriz haura zohixaura kentzen dotsak ta hartzen dok egur bat, eta zirikatu goittikan behera. Ta zelan barruan botatzen dan haura egurraura harek [...] erreta egoten dittuk. Harek ahal dan ta behera bajatu danak, han berriro be barrixak

sartu ta berriro be tapauta ipiñi. Ta gero, poliki-poliki eitten dok puntan egurak biguntzen. Ixo norbera geiñera --hari lehenenguan be, ba, holako zabalera bat edo geratzen jakok, [...]-, pixkat zertzen danian haren geiñera ixo, han geiñian hola sakatu, ta "krak-krak" ekitten dok, ya iketza eitten dauela muestria. Ta gero haura, sakatzen-sakatzen, egunian pare bat aldiz sakatu bihar izeten dok haura. Hartzen dok haga luze bat heu hemen haren geiñian bueltan ibiltzeko, ta harekin defendiduz [...] geiñian.

- Badaezpada be...

- Bai. Hau, konparaziño, honenbestian bada, goixan geratuko dok, ba, hola, batua. Ya han batzen-batzen juaten dok, gastatzen-gastatzen juaten dok behera. Holakoxe zabalerako koska bat [eruatzen] jok; egosittakua hor, ta bestia artian be hemen koskia juaten dok beheraiñokan. Ixa beheko barrenera... barrenera allegatzen dan inguruan, [sua] allegatzen dan inguruan-- aurretikan egoten dok ya kerik eta barikan denporalian, egunetan--, gero ixa barrenera allegatzen danian, bera ekitten dok keia darixola behetikan txendorra. Ya senaillia sua beheraiño allegau dana.

23. Ikatza txondorretik nola atera

- **Erref:** SOR-024/013
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:34:12. **Bukatu:** 00:35:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ikatza nola ateratzen zuten.

Transkripzioa

- Gero etaratzeko, haura... keiok pixkat gastatzen jakon edo zertzen jakon [...] eitten ebala behera. Ta, gero, egun batzuetan lagatzen dotsak, egun bat edo gehixao lagatzen badotsak hari, atzera indarra hartzen jok harek. Ta komeni izeten dok haura keia gastatzen jakon zerien, goittikan behera... Belakixa esaten jakuan oholezko zer batzuk eukitzen genduazen, atxurran formako batzuek. Ta harekin kendu lurra dana behera, ta zikiña edo zera badauka kendu ta atzera han "da!" tapau haura. Berriz beste zati bat, beste zati bat, buelta danian garbittu. Gero, hurrengo egunian-edo ekitzen hetsan etaratzen. Etaratzen be iguala: hartu goittik behera sardiakin ta, puntan, ta holako zabalerako zati bat ta beheraiñokan. Etaratzen heban iketza, ta iketz hori atzian gero eskobakin-edo zabalduta ipintzen heban hoztu dein, berriro su hartu ez deixen. Bestela, iketza hona behera bajatu [ta] hamen lagatzen badok pixkat sendo-samar, atzera horraxxe etaratzen jok. Ta zabal-zabal eitten badok, ya hoztu eitten dok ikatza. Buelta danian haura pasau, berriz hurrengo txandan be iguala: berriro [...] zati bat... Txendor hor... hirurogeta hamar bat zaku daukazen, hirurogeta hamar-hamabost zaku daukazen txendorra, ba, hiru bat ekiñaldittan-edo etaratzen da. Ta, bestela, prisaka [...], su hartu ta erre igual.

- Larrei kendu ezker...

- Larrei ez. Hik batera kentzen badok haura, ba, han pillia ta artian haura jo-ta berua daok eta harek hartzen deuk indarra edo pixkat sua [pizten ekitten] bajak, han ez daok aguantatzerikan.

24. Txondorraren arriskuak

- **Erref:** SOR-024/014
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:35:55. **Bukatu:** 00:36:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Txondorrak botatzen zuen berotasuna; erretzeko arriskua.

Transkripzioa

- Ta hori peligrsua izeten zan?
- E?
- Peligrsua?
- Bai, argi ez babil, heuk be su hartzeko arriskua. Han ekitzen babilzan, eutsiko jotsat eta bestiak eta jo-ta erropa zaharrok hango berotasunakin-ta berotzen jazak eta heu... su hartzeko [dispuesto] erropak. Peligrso-peligrsua ez, norberak erreparo pixkat euki ezker, ez zuan eukitzen horrenbeste peligr.
- Eta ez zeuan, holan, modurik pixkat peligr hori kentzeko? Ba, ez dakit, txondorran gailan-edo ohol batzuk ipiñi edo ez? Barrenera sartzeko... Halakorik ez zeuan [hemen inguruan]?
- Ez, ez, ez.
- Entzun batenbat zertu zanik edo? Erre zanik edo hola...?
- Txondorrian? Ez, ez juat entzun.

25. Ikazkintza baserri guztietan

- **Erref:** SOR-024/016
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:38:10. **Bukatu:** 00:38:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ikatz asko saltzen zuten; nora. Baserri guztietan egiten zen ikatza.

Transkripzioa

- Ta gero saldu nora eitten zenduen, kalera?
- Plazentziara be bai, Bergarara be bai. Orduan ikatza asko kostatzen zuan. Hamen ez jeuan orduan basarririkan ikezgintziak beste diru emoten ebanik. Hamen lurra jaso bihar lehelengo artua ereingo bazan edo patatia sartuko bazan be bai. Badakik zenbat lan [...] alperriken, dana atxurran ta kristuetan ta? Hamen izaten zuan etxerako lain hartzen zala ta hauraxe ta hauraxe zalakuan. Harek ez jeukan dirurik.
- Iketzak bai...
- Iketzak bai, iketzak ondo emoten juan.

26. Ikatza egiten zenbat urterekin hasi zen

- **Erref:** SOR-024/017

- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:38:50. **Bukatu:** 00:40:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Ikazkintzan zenbat urterekin hasi zen. Aitak Eibarko Arizmendi baserrian ikusi zuen gaztetan txondorra nola egiten zuten.

Transkripzioa

- Eta zu noiz... noiz jakin zenduan zuk ikazgintzan gitxi gorabehera?
- Nik? Nik ikazgiñan, ba... ekingo nintzuan ni treinta y ocho, holako bat, lehelengo etxian ein [...] aitta zanak eta bixok. Etxe onduan, Kiruetan. Ta, gero, egurra hara ekartia asko kostatzen zan tiratzia hara, ta han bertan, eguan lekuan, basuan, Bertan eitten genduazen horrek lau-unok ta han.
- Ta lehenau be aittak einda zekazen?
- Berak gaztetan zala ikusitta. Arrate balleko Arizmendin egon zuan kriaugure aitta zana. Egon ei zuan. Ba, haintxe ikusitta txendorrak zela eitten zian ta zela izeten zan iketza eittia. Ta, gero, Kiruetan bajeuazen ehun ta hamahiru pago-edo, [horrek] arbola haundixok, ta adarrak be bai honenbeste sendokuak-eta batzuek baeukezen. Pago bati ebai [notsezen] —ba! honenbeste izengo zuan mehiena be— hamaika adar.
- Pago bati?
- Harek zenbat urtian eren mozteke...

27. Pago-buruak ikatza egiteko

- **Erref:** SOR-024/018
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:40:12. **Bukatu:** 00:41:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Txondorra egiteko adarrak mozten zituzten. Pago-buruak.

Transkripzioa

- Normalian, ikatza eitteko ze eitten zan, adarrak moztu ala pagua osorik moztu?
- Ez, ez, adarra, adarra moztu. Bai. Adarra berriro etaratzen jok arbolia. Hik goixan mozten badok, berriro adarra etaratzen jok han. Hik hondotik botatzen badok, bai, hondotik botatzen badok, ba, materixaletarako. Haura gerrixaura, gerrixa esaten jakona aprobetxatzen dok; ta goiko adarrekin ta buruakin be bai iketza. Baiña pago-burua ta horrek pixkat peligrasuak. Bueno, lan zakarraua hori. Zelan egurrak... Igual pago-buru [...] hau mahaixau baiña haundixauak ipintzen dittuk han ta. Baiña harek [ez] danak juntatzerikan; erdixan igual geratzen jak han holakotxe huekua. Ta [...] pixkat biguntzen jakozenian, han kurioso ez [bada ipintzen], behera juaten dok [...]. Ta hurrengo, berriz, heu akordatzeke igual aurretikan ondo ipini dualaukuan ta han [gogor-una baten...] ta hurrengo haura pixkat

biguntzen... jo-ta “grauk” eta behera,. Zatixa behera ta arreglaik haura. Atzera bete egur zatixekin ta tapaik haura lurrakin. De dios! Han ikusten zuan inperua! Egun onak be bai asko ikazgiñan. Egurra preparauta... behin egurra preparau... egosten henbillenian, egunak. Bai. Hala be, adarrakin-ta hebillenian, goizian beittu bat ta eguardi inguruan ta berriro gaberako ipini ondo ta... Bai, goizian be... Ez, ba, laga ta ihes ein handikan, baiña... Ostian ondo.

28. Ikazkin hainbat basotan

- **Erref:** SOR-024/019
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:41:48. **Bukatu:** 00:43:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Beraiek eramaten zuten ikatza kalera. Elosun, Pol-polen ikazkintzan.

29. Basoan ikazkintzan

- **Erref:** SOR-024/021
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:45:00. **Bukatu:** 00:48:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

<p>Basoan ikazkintzan; gauean deiadarka.</p>

30. Harri-losak mendian

- **Erref:** SOR-024/022
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:48:05. **Bukatu:** 00:49:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Antzinako kontakizuna. Harri-losak mendian.

31. Ikatza egiten zuten bitartean erabiltzen zuten

- **Erref:** SOR-024/023
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:49:55. **Bukatu:** 00:53:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Ikazkintza; txabola nola egiten zuten. Txabola bera erabiltzen zuten 2-3 urtetan. Farola argia emateko.

32. Ate-saria zer den azaltzen du

- **Erref:** SOR-024/027
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:57:15. **Bukatu:** 00:58:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Ate-saria zeri esaten zaion azaltzen du. Erromara.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-02-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com